



Euskadiko nekazaritza elikagaien
katearen kontrol ofizialerako Plana
2021-2025

Euskal Autonomía Erkidegoko
Nekazaritza Elikagaien Katearen
Kontrol Ofizialen Planeko
Auditoretza Programa

2021-2025

EDUKIEN ARGIBIDEA

1. Auditoretza Programa	2
2. Auditoretza Programaren Helburua.....	3
3. Auditoretza-eredua.....	3
4. Erakunde Ikuskatzailea.....	3
5. Aintzat hartu den araudia	4
6. Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Plan Nazionala 2021-2025 (ekopn).....	5
7. Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Kontrol Ofizialerako Plana2021-2025	6
8. Arriskuen Analisia	12
9. Auditoretzaren Egitura	14
10. Auditoretzaren Egutegia	17
11. Auditoretza-prozesua eta -irizpideak	18
12. Segimendua eta Berrikuspena	25
13. Gardentasuna.....	26

1. AUDITORETZA PROGRAMA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduak, zeinak gai baititu kontrol eta bestelako jarduera ofizialak gauzatu direnak elikagai eta pentsuen legeak betetzen direla bermatzeko, bai eta animalien osasun eta ongizateari eta landareen osasunerako eta babeserako produktuei buruzko arauak, 6. artikuluan hau ezartzen du: *"Agintari eskudunek barne-auditoretzak egingo dituzte edo horiek egiteko agindua emango dute, eta emaitzaren arabera, neurri egokiak hartuko dituzte. Auditoretza horiek azterketa independente baten bidez egingo dira eta gardenki gauzatuko dira"*.

Auditoretzak egiteko irizpideak ezartzen dituzten ildoetara jarraiki (agiri honetan jasota daude: *"Batzordearen komunikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren (2021/C 66/02) 6. artikulua betez auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioari buruzko orientazio-dokumentu bati buruzkoa"*), uste da ikuspegi sistematikoa aplikatu behar dela horiek planifikatu, egin, jarraitu eta kudeatzeko. 5.1 atalean, laugarren puntuan, adierazten da auditoretza-prozesuak *"Auditoretza-programa bat ezarriko duela, jarduera-arlo garrantzitsu guztiak eta 2017/625 (EB) Erregelamenduak aipatzen dituen agintari eskudun guztiak barne hartuko dituena, eta maiztasun egokia izango duela, arriskuen arabera eta bost urtetik beherako epean"*.

"Batzordearen komunikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren (2021/C 66/02) 6. artikulua betez auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioari buruzko orientazio-dokumentu bati buruzkoa" dokumentuak bereak jasotzen duen definizioa kontuan hartuta, 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 3. artikuluari eta 178/2002 (EE) Erregelamenduaren 2. eta 3. artikuluei dagokienez, "auditoretza-programa" honako hau da: denbora jakin baterako planifikatutako eta helburu zehatz bat lortzera bideratutako auditoretza bat edo hainbaten multzoa. Hori oinarri hartuta, atal hauetan banatuta dago auditoretza-programa hau:

- Helburua.
- Auditoretza-eredua.
- Auditoretza egiteko aintzat hartu den araudia.
- EKOPN 2021-2025.
- Euskadiko nekazaritzako elikagaien katearen kontrol ofizialerako plana 2021-2025.
- Arriskuen analisia.
- Auditoretza-egitura.
- Auditoretza-egutegia.

- Aplikatzekoak diren auditoretza-prozesua eta -irizpideak.
- Segimendua eta berrikuspena.
- Gardentasuna.

2. AUDITORETZA PROGRAMAREN HELBURUA

Auditoretza-programa honen helburu nagusia da egiaztatzea ea pentsuen eta elikagaien esparruko legeriari buruzko kontrol ofizialak eta landare-osasun, fitosanitarioen produktu, animalien osasun eta ongizateari buruzko araudia modu eraginkorren aplikatzen diren eta ea egokiak diren aplikatzekoa den legeriaren helburuak betetzeko, Euskadiko nekazaritzako elikagaien katearen kontrol ofizialerako plana 2021-2025 betetzea barne.

3. AUDITORETZA-EREDUA

Euskal Autonomia Erkidegoan, Fundación HAZI Fundazioak nekazaritza-arloko agintaritza eskudunen izenean garatutako barne-auditoretzako eredu bat ezarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, Foru Administrazioetako eta horien mendeko erakundeetako bitarteko instrumental eta zerbitzu tekniko den heinean.

4. ERAKUNDE IKUSKATZAILEA

"Batzordearen komunikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren (2021/C 66/02) 6. artikulua betez auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioari buruzko orientazio-dokumentu bati buruzkoa" erakunde ikuskatzailetzat jotzen da "auditoretza-prozesua gauzatzen duen erakundea, barnekoa zein kanpokoa izan daitekeela". Erakunde ikuskatzailea da programaren barruan jasotzen diren auditoretzak egiteaz arduratzen den erakundea (bakarra edo gehiago). Erakunde horrek auditoretza egiteko behar den boterea ematen dion dokumentu bidezko agindu argi bat izan beharko du.

Erakunde bakoitza jarduketa horiek gauzatzeko eskumena duten pertsonaz egongo da osatuta. Era berean, erakunde ikuskatzaile bakoitzeko langileek ikuskatzaile taldeak osatuko dituzte auditoretzak egiteko, eta aditu teknikoen laguntza ere izango dute, behar izanez gero. Ikuskatzaile batek edo batzuek osatuko dituzte taldeak, eta horiek gauzatzeko gaitasun eta ezaugarriak erakutsiko dituzte.

Ikuskatzaileak hautatzeko gaitasunak eta irizpideak honako hauen arabera definituko dira, "*Batzordearen komunikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren (2021/C 66/02) 6. artikulua betez auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioari buruzko orientazio-dokumentu bati buruzkoa*" orientabideei jarraikiz:

- Gaitasun eta ezagutza orokorrak.
- Gaitasun eta ezagutza tekniko espezifikoak.
- Ezaugarri pertsonalak.
- Ezagutzak eta gaitasun orokorrak.
- Auditoretzarako oinarriak, prozedurak eta teknikak.
- Antolakuntza- eta kudeaketa-gaitasunak.
- Gaitasun eta ezagutza espezifikoak.
- Ezaugarri pertsonalak.
- Ikasketak.
- Esperientzia profesionala.
- Auditore gisa duen prestakuntza eta esperientzia.

Erakunde ikuskatzaileak ikuskatutako jarduerarekiko independentea izan behar du, eta ezin da jarduera horrekiko partzialtasun-egoeran edo interes-gatazka batean egon, ez dezan haren ondorioetan edo auditoretza-prozesuaren emaitzan eraginik izan dezakeen presiorik izan.

Zenbait inguruabarretan, independentzia oso edo absolutua izatea ezinezkoa da; hortaz, auditoretzak era bidezko, objektibo eta inpartzian gauzatu direla bermatuko duen independentzia-maila eskatzen da.

5. AINTZAT HARTU DEN ARAUDIA

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamendua, zeinak gai baititu kontrol eta bestelako jarduera ofizialak gauzatu direnak elikagai eta pentsuen legeak betetzen direla bermatzeko, bai eta animalien osasun eta ongizateari eta landareen osasunerako eta babeserako produktuei buruzko arauak.
- Batzordearen komunikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren (2021/C 66/02) 6. artikulua betez auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioari buruzko orientazio-dokumentu bati buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 178/2002 Erregelamendua (EE), elikagaiei buruzko legeriaren printzipioak eta ezaugarri orokorrak ezartzen dituena,

Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortzen duena eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak finkatzen dituena.

- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.
- 17/2011 Legea, uztailaren 5koa, elikagaien segurtasunari eta nutrizioari buruzkoa.

Ez da atal honetan zehazten komunitate, estatu, autonomia eta foru bakoitzean aplikatzekoa den araudi espezifikoa.

Horrez gain, beste dokumentu batzuk ere badaude, legezko araudia osatzen ez badute ere auditoretzak gauzatzeko erreferentziatzko esparrua osatzen duenak.

- UNE-EN ISO 9000:2015 Araua (definizioen iturri gisa, 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua betez auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioari buruzko orientazio-dokumentuaren arabera).
- UNE-EN ISO 19011:2018 Araua (orientazio orokor eta definizioen iturri gisa, 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua betez auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioari buruzko orientazio-dokumentuaren arabera).

6. ELIKAKATEAREN KONTROL OFIZIALERAKO PLAN NAZIONALA 2021-2025 (EKOPN)

EKOPN 2021-2025 2017/625 Erregelamenduaren (EE) 109. artikuluko eskakizunari erantzuteko gauzatu da; izan ere, artikulua hau dio: “Estatu kide bakoitzak kontrolerako urte anitzeko plan nazional integratu bat prestatuko du”. Planean nekazaritzari dagokionez elikakate osoan (lehen mailako ekoizpenetik amaierako kontsumitzailearentzako salmenta puntuetara) egin behar diren kontrol ofizialerako jarduerak deskribatzen dira, 21 kontrol ofizialeko programatan.

EAEn honako kontrol-programa hauek aplikatu behar dira:

Arrantzaren eta Akuikulturaren Higienea

1. Erauzketa Arrantzaren Lehenengo Mailako Ekoizpenaren Higienearen Kontrol Ofizialeko Programa
2. Akuikulturako lehenengo mailako ekoizpenaren Higienearen eta Animalia Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa

Nekazaritza Higienea eta Landareen Osasuna

3. Nekazaritzako Lehenengo Mailako Ekoizpenaren eta Produktu Fitosanitarioen Erabileraren Kontrol Ofizialeko Programa
4. Produktu fitosanitarioen merkaturatzearen Kontrol Ofizialeko Programa

5. Landareen Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa
6. Elikagaiak eta pentsuak ekoizteko genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) boluntarioki askatzeari buruzko Kontrol Ofizialeko Programa

Animalia Higienea, Ongizatea eta Osasuna

7. Animalia Ustiatagietako Higienaren eta Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa
8. Abeltzaintza Ustiatagietako eta Animalien Garraioko Animalia Ongizatearen Kontrol Ofizialeko Programa
9. Behi-, ardi- eta ahuntz-espezieko animaliak identifikatu eta erregistratzeko Kontrol Ofizialeko Programa
10. Behi-, zaldi-, ardi-, ahuntz- eta txerri-espezieetako ugalketa-produktuen establezimendu baimenduen Kontrol Ofizialeko Programa
11. Behi, ardi, ahuntz eta zaldien kontzentrazio-esparru baimenduen eta behi, ardi, ahuntz eta txerrien tratulari baimenduen Kontrol Ofizialeko Programa
12. 92/65 Zuzentarauak ofizialki baimendutako organismo, institutu edo zentroen Kontrol Ofizialeko Programa

Animalien Elikadura eta Azpiproduktuak

13. Animalien Elikaduraren Kontrol Ofizialeko Programa
14. Giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuen (SANDACH) Kontrol Ofizialeko Programa SANDACH establezimendu eta Garraioetan

Elikagaien Kalitatea

15. Elikagaien Merkataritza Kalitatearen Kontrol Ofizialeko Programa
16. Jatorri Geografiko bati otutako Kalitatearen eta merkaturatu aurretik Bermatutako Espezialitate Tradizionalen Kontrol Ofizialeko Programa.
17. Ekoizpen Ekologikoaren Kontrol Ofizialeko Programa

7. EUSKADIKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KONTROL OFIZIALERAKO PLANA 2021-2025

EAEn Euskadiko nekazaritzako elikakatearen kontrol ofizialerako 2021-2025ko planak (EKOPN 2021-2025 du erreferentziazko esparrutzat) Autonomia Erkidegoan kontrol ofizialerako programak aplikatzeko sistematika orokorra eta bere berezitasunak ezartzen ditu.

7.1. Agintzari eskudunak

2017/625 Erregelamenduak (EE) honako hau dio 4.1 artikuluan: "Estatu kideek izendatuko dituzte agintari eskudunak, Erregelamendu honek ezarritako helburu eta kontrol ofizialei eta beste ekintza ofizialei dagokienez".

Bere eskumenez baliatuz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskumenak arautzen dituzten hainbat ararekin bat etorriz, erakunde horri dagokio 2017/625 Erregelamenduan (EE) ezarritako helburuen eta kontrol ofizialen gaineko erantzukizuna hartzea, eta zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, nekazaritza-arloari dagokionez.

Aintzat hartuta azaroaren 25eko 27/1983 Legetik (Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeen Arteko Harremani buruzkoa) eratortzen diren osasun, landare-ekoizpen eta animalien arloko eskumenen banaketa eta 34/1985, 42/1985 eta 53/1985 Dekretuen bitartez lurralde historikoei eskuordetzen zaizkien nekazaritza-arloko eskumenak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei eskuordetzen zaizkie Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzuak. Erakunde horien zeregina izango da, alde batetik, ekoizpen-baliabideen eta ekoizpenen eta, bestetik, animalien ekoizpenaren eta osasunaren kalitatea kontrolatzea, ekoizpen-baliabideen hobekuntzan eta kontrolean eta animalien gaixotasunen prebentzioan eta saneamenduan esku hartzeko.

EAEko eskumen-sistemak duen egitura berezia dela eta, hainbat agintari eskudunek dute 2017/625 Erregelamenduak (EE) aipatzen dituen helburuak lortzeko eta kontrol ofizialak antolatzeko ardura, arloaren arabera (Pentsuak, Elikagaiak, Animalien Osasuna eta Ongizatea eta Landare Osasuna).

Euskadiko nekazaritzako elikagaien katearen kontrol ofizialerako 2016-2020ko planean jasotzen diren kontrol ofizialeko programak antolatzeko agintari eskudunak.

- **EJ-EGJIS:** Eusko Jaurlaritza -Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.
- **AFA-NS:** Arabako Foru Aldundia - Nekazaritza Saila.
- **BFA-IEINZS:** Bizkaiko Foru Aldundia – Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila.
- **GFA-ESLILOS:** Gipuzkoako Foru Aldundia – Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Saila.

7.2. Kontrol-programen aplikazioa EAEn

Euskadiko nekazaritzako elikagaien katearen kontrol ofizialerako 2021-2025ko planak kontrol ofizialeko 18 programa ofizial jasotzen ditu EAEn aplikatzeko.

Albaitaritzako sendagaiak banatzeko, agintzeko eta emateko kontrol ofizialerako programari dagokionez, esan behar da bertan jasotako kontrol-jarduerak EAEn ez dituztela nekazaritza-arloko agintari eskudunek gauzatzen; hori dela eta, ez dago jasota Euskadiko Kontrol Planean, eta ondorioz ezta auditoretza-programa honetan ere.

Auditoretza egin beharko litzaiekeen EAeko 18 programa nazionalak 17 programa autonomikotan jasota daude (Akuikulturako lehen mailako ekoizpenean *Higienearen Programan* animalien eta akuikulturako produktuen osasun-arloko araudia betetzen dela egiaztatzeko programa barne hartzen baita), eta jarraian deskribatzen dira, erreferentziazko eta kudeaketako oinarritzko informazioa biltzen duten fitxen sistema honetan:

ARRANTZA ETA AKUIKULTURAREN HIGIENEA

<i>P-I.- Erauzketa-arrantzaren lehenengo mailako ekoizpenaren higiene-kontrol ofizialerako programa.</i>	
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Arrantza eta Akuikultura
	Zerbitzua: Arrantza Plangintza eta Antolamendua
	Kontrol-erakundea: Arrantza Ikuskaritzaren Zerbitzua

<i>P-II.- Akuikulturako lehenengo mailako ekoizpenaren higienearen eta animalia osasunaren kontrol ofizialeko programa</i>	
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Arrantza eta Akuikultura
	Zerbitzua: Arrantza Plangintza eta Antolamendua
	Kontrol-erakundea: Arrantza Ikuskaritzaren Zerbitzua

NEKAZARITZA HIGIENEA ETA LANDAREEN OSASUNA

<i>III.- Nekazaritzako Lehenengo Mailako Ekoizpenaren eta Produktu Fitosanitarioen Erabileraren Kontrol Ofizialeko Programa</i>	
AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Laguntza zuzenak
	Kontrol-erakundea: Laguntza zuzenen zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontrol-erakundea: Nekazaritza Zerbitzua
GFA	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Nekazaritza Sustapena eta Antolamendua
	Kontrol-erakundea: Koordinazio- eta komunikazio-langileak.

<i>IV.- Produktu fitosanitarioen merkaturatzearen Kontrol Ofizialeko Programa</i>	
AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Laguntza zuzenak
	Kontrol-erakundea: Laguntza zuzenen zerbitzua

BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontrol-erakundea: Nekazaritza Zerbitzua
GFA	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Nekazaritza Sustapena eta Antolamendua
	Kontrol-erakundea: Koordinazio- eta komunikazio-langileak.

V.- Landareen Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa

AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Laguntza zuzenak
	Kontrol-erakundea: Laguntza zuzenen zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontrol-erakundea: Nekazaritza Zerbitzua
GFA	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Nekazaritza Sustapena eta Antolamendua
	Kontrol-erakundea: Koordinazio- eta komunikazio-langileak.

VI.- Elikagaiak eta pentsuak ekoizteko genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) boluntarioki askatzeari buruzko Kontrol Ofizialeko Programa

AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Laguntza zuzenak
	Kontrol-erakundea: Laguntza zuzenen zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontrol-erakundea: Nekazaritza Zerbitzua
GFA	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Nekazaritza Sustapena eta Antolamendua
	Kontrol-erakundea: Koordinazio- eta komunikazio-langileak.

ANIMALIA HIGIENEA, ONGIZATEA ETA OSASUNA

VII.- Animalia Ustiatzearen Higienearen eta Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa

AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
DFG	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintza Ekoizpenak eta Merkatuak
	Kontrol-erakundea: Koordinazio- eta komunikazio-langileak.

VIII.- Abeltzaintza Ustategietako eta Animalien Garraioko Animalia Ongizatearen Kontrol Ofizialeko Programa

AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
DFG	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintza Ekoizpenak eta Merkatuak
	Kontrol-erakundea: Koordinazio- eta komunikazio-langileak.
	Servicio: Promoción y Ordenación Agraria
	Organismo de control: Personal de coordinación y comunicación.

IX.- Behi-, ardi- eta ahuntz-espezieko animaliak identifikatu eta erregistratzeko Kontrol Ofizialeko Programa

AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
DFG	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintza Ekoizpenak eta Merkatuak
	Kontrol-erakundea: Koordinazio- eta komunikazio-langileak.

X.-Behi-, zaldi-, ardi-, ahuntz- eta txerri-espezieetako ugalketa-produktuen establezimendu baimenduen Kontrol Ofizialeko Programa

AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
DFG	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintza Ekoizpenak eta Merkatuak
	Kontrol-erakundea: Koordinazio- eta komunikazio-langileak.

XI.- Behi, ardi, ahuntz eta zaldien kontzentrazio-esparru baimenduen eta behi, ardi, ahuntz eta txerrien tratulari baimenduen Kontrol Ofizialeko Programa

AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua

DFG	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintza Ekoizpenak eta Merkatuak
	Kontrol-erakundea: Koordinazio- eta komunikazio-langileak.

XII.- 92/65 Zuzentarauak ofizialki baimendutako organismo, institutu edo zentroen Kontrol Ofizialeko Programa

AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
DFG	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintza Ekoizpenak eta Merkatuak
	Kontrol-erakundea: Koordinazio- eta komunikazio-langileak.

ANIMALIEN ELIKADURA ETA AZPIPRODUKTUAK

XIII.- Animalien Elikaduraren Kontrol Ofizialeko Programa

AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
DFG	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Trazabilitatearen eta Elikagaien Segurtasunaren Zerbitzua
	Kontrol-erakundea: Trazabilitatearen eta Elikagaien Segurtasunaren Zerbitzua

XIV.- Giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuen (SANDACH) Kontrol Ofizialeko Programa SANDACH establezimendu eta Garraioetan

AFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrol-erakundea: Abeltzaintza Zerbitzua
DFG	Saila: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola
	Kontrol-erakundea: Ikuskapena eta kontrola
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta abeltzaintza
	Zerbitzua: Trazabilitatearen eta Elikagaien Segurtasunaren Zerbitzua
	Kontrol-erakundea: Trazabilitatearen eta Elikagaien Segurtasunaren Zerbitzua

ELIKAGAIEN KALITATEA

XV.- Elikagaien merkataritza-kalitatearen kontrol ofizialerako programa	
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Kalitate eta Elikagaien Industrien Zuzendaritza
	Zerbitzua: Kaliaterearen Defentsarako eta Iruzurren Kontrolerako Zerbitzua
	Kontrol-erakundea: Kaliaterearen Defentsarako eta Iruzurren Kontrolerako Zerbitzua
XVI.- Jatorri geografiko bati loturiko kalitate ezberdinuaren eta merkaturatu baino lehenagoko ohiko espezialitate bermatuen kontrol ofizialerako programa.	
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Kalitate eta Elikagaien Industrien Zuzendaritza
	Zerbitzua: Kaliaterearen Defentsarako eta Iruzurren Kontrolerako Zerbitzua
	Kontrol-erakundea: Fundación HAZI Fundazioa
XVII.- Ekoizpen ekologikoaren kontrol ofizialerako programa.	
EJ-EGJIS	Zuzendaritza: Kalitate eta Elikagaien Industrien Zuzendaritza
	Zerbitzua: Kaliaterearen Defentsarako eta Iruzurren Kontrolerako Zerbitzua
	Kontrol-erakundea: Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (ENEK)

8. ARRISKUEN ANALISIA

Kontrol-programen arriskuen ebaluazioa egiteko, lehenik eta behin kontuan hartu behar diren irizpideak definitzen dira. Ondoren, irizpide horien haztapen bat ezartzen da, eta horren arabera kalkulatu da programa bakoitzaren arrisku-maila.

8.1. Arriskuen ebaluazioa egiteko irizpideak

Arriskuen ebaluazioa egiteko erabiliko diren zazpi irizpide definitu dira. Hiru kategoriatan daude banatuta:

I.- Arriskuaren larritasuna

- A. Giza osasunari eragiten dio
- B. Animalien osasunari eta/edo ongizateari eragiten dio
- C. Eragina du lehengaiaren / elikagaiaren kutsaduran

II. Biztanleriaren esposizioa

- D. Elikagaia kontsumitzen duen biztanleria
- E. Kontsumitutako elikagai kopurua

III. Sektorearen dimentsioa

- F. Sektorearen tamaina
- G. Eragina jasan duen elikagai-ekoizpena

8.2. Irizpideen haztapena

Irizpide bakoitza 1etik 5era haztatu da, taula hauen arabera:

I.- ARRISKUAREN LARRITASUNA

A. Giza osasunari eragiten dio	Oso larria – askotan heriotza eragin dezake	5
	Larria- batzuetan heriotza eragin dezake	4
	Neurritsua – esku-hartze medikoa behar izaten da	3
	Arina – batzuetan esku-hartze medikoa behar da	2
	Oso arina – normalean ez da esku-hartze medikorik behar	1

B. Animalien osasunari eta/edo ongizateari eragiten dio	Oso larria – askotan heriotza eragin dezake	5
	Larria- batzuetan heriotza eragin dezake	4
	Neurritsua – esku-hartze albaitaria behar izaten da	3
	Arina – batzuetan albaitaritzako esku-hartzea behar da	2
	Oso arina – normalean ez da albaitaritzako esku-hartzerik behar	1

C. Eragina du lehengaiaren / elikagaiaren kutsaduran	Elikagaiari zuzenean eragiten dio	5
	Zeharka eragiten dio	3
	Ez dio eragiten	1

II.- BIZTANLERIAREN ESPOSIZIOA

D. Elikagaia kontsumitzen duen biztanleria	Guztia (% 100).	5
	Gehiengoa (% 75)	4
	Erdia (% 50)	3
	Batzuk (% 25)	2
	Oso gutxi (% 5)	1

E. Kontsumitutako elikagai kopurua (errazioak)	200 g/egun baino gehiago:	5
	150 eta 200 g/egun bitartean	4
	100 eta 150 g/egun bitartean	3
	50 eta 100 g/egun bitartean	2
	50 g/egun baino gutxiago	1

III.- SEKTOREAREN DIMENTSIOA

F. Sektorearen dimentsioa	Oso handia	5
	Handia	4
	Ertaina	3
	Txikia	2
	Oso txikia	1

G. Eragina jasan duen elikagai-ekoizpena	Oso handia	5
	Handia	4
	Ertaina	3
	Txikia	2
	Oso txikia	1

8.3. Arrisku mailaren kalkulua

Ikuskatu behar diren programak aztertu eta gero, programa bakoitzari balio bat ematen zaio irizpide bakoitzeko. Ondoren, eta kontuan hartuta arriskuaren larritasuna dela horietan garrantzitsuena, balio bikoitz bat ematen zaie gainerako irizpideei. Formula honetan oinarrituz egiten da amaierako kalkulua:

Lortutako emaitzarekin, kontrol-programak horietako bakoitzaren arriskuaren arabera ordenatzen dira, eta, hala, auditoretza-programa honen 9.3 atalean zehazten den arriskuen arabera lehenespena lortzen da.

9. AUDITORETZAREN EGITURA

9.1. Arriskuen maila kalkulatzea

EAEn, auditoretza bertikaleko sistema bat aplikatzen da kontrol-programa bakoitzerako, eta arestian aipatutako arrisku-analisiaren arabera antolatzen dira, irismen osoa duten bost auditoretza-programak hautatzeko. Ikuskaritzei honako hauetan oinarrituta ematen zaie lehentasuna: Ikuskaritzen historia, 2016-2020 Nekazaritza Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Planean emandako eta baliozkotutako ekintza-plan bat izatea eta Programaren ezarpen-maila.

Auditoretza-sistema horretan jasotzen dira agintari eskudunaren antolakuntza eta egitura alderdi guztiak, baita alderdi teknikoak edo kontrol-jarduerekin lotutakoak ere, agintari eskudunaren eta auditoretza egiten duen erakundearen artean adostutako irismenarekin.

9.2. Ikuskaritzen irismena

Kontrol-programa bakoitzaren auditoretzaren irismena arestian deskribatutako arriskuen analisisan oinarrituta zehazten da. Arrisku handieneko kontrol-programei (≥ 25 puntu arriskuen analisisan) irismen osoarekin egingo zaie auditoretza, eta arrisku txikiagoa dutenei (< 25 puntu), berriz, irismen mugatuarekin.

Irismen osoko ikuskaritzetan, ezarritako 10 auditoretza-prozedura aplikatu behar dira; irismen mugatuko ikuskaritzetan, aldiz, 6 auditoretza-prozedura.

Irismen mugatuko ikuskaritzetan, ez zaie auditoretzarik egingo prozedura hauei:

PG-3 ZEREGINAK ESKUORDETZEA
PG-6 LAGINKETA ETA ANALISIA
PG-7 LABORATEGI OFIZIALAK

PG-9 KONTINGENTZIA-PLANAK

Auditoretza-txostenak kasuan kasuko eskumen-esparruaren arabera dagokion agintaritza eskudunari bidaliko zaizkio. Erakunde ikuskatzaileak erkidego-mailako laburpen-txosten bat egingo du, EAEko Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Plana koordinatzeko lantalde horizontalak hala aginduta.

9.3. Auditoretzak egiteko lehentasuna

Aurrez zehaztutako arriskua ebaluatzeko metodologia oinarri hartuta, arriskuaren ebaluazioa egin da.

Hauek dira irismen osoarekin ikuskatuko diren arrisku handieneko auditoretzak:

1. Abeltzaintzako lehen mailako ekoizpenaren Higienari eta Osasunari buruzko Kontrol Ofizialaren Programa
2. Nekazaritzako Lehenengo Mailako Ekoizpenaren eta Produktu Fitosanitarioen Erabileraren Kontrol Ofizialeko Programa
3. Erauzketa-arrantzaren lehenengo mailako ekoizpenaren higie-nekontrol ofizialerako programa.
4. Landareen Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa
5. Animalien Elikaduraren Kontrol Ofizialeko Programa

Halaber, 2021-2025 bosturtekorako egutegiaren proposamena egite aldera, beste hiru irizpide aplikatu dira (ikuskaritzen historia, 2016-2020 Nekazaritza Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Planean ekintza-plan bat izatea eta ikuskaritzen historiaren programaren ezarpen-maila). Irizpide horiek honela haztatuko dira:

H. 2026-2020 Auditoretzak	Egin gabe	15
	2016	10
	2017	5
	2018	0
	2019	-5
	2020	-10

I. 2016-2020 ekintza-plana	2016-2020 Nekazaritza Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Planean ekintza-plana entregatzea	-5
-----------------------------------	--	----

J. Programaren ezarpen-maila	2016-2020 Nekazaritza Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Planean ezarritako programak	0
	Ezarritako programa berriak	10
	Ezarri gabeko programa berriak	-5

IV., V. eta VI. irizpideak arriskuen analisisian lortutako puntuazioari batuko zaizkie, formula honen arabera:

$$\text{Ikuskaritzen lehentasuna (egutegia): } 2I + II + III + IV + V + VI = 2(A+B+C)+D+E+F+G+H+I+J$$

Horrenbestez, azken ebaluazio horren arabera ikuskaritzen lehentasuna honela geratuko da:

1. Animalia Ustategietako Higienaren eta Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa
2. Nekazaritzako Lehenengo Mailako Ekoizpenaren eta Produktu Fitosanitarioen Erabileraren Kontrol Ofizialeko Programa
3. Erauzketa Arrantzaren Lehenengo Mailako Ekoizpenaren Higienaren Kontrol Ofizialeko Programa
4. Landareen Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa
5. Animalien Elikaduraren Kontrol Ofizialeko Programa
6. Abeltzaintza Ustategietako eta Animalien Garraioko Animalia Ongizatearen Kontrol Ofizialeko Programa
7. Akuikulturako lehenengo mailako ekoizpenaren Higienaren eta Animalia Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa
8. Elikagaien Merkataritza Kalitatearen Kontrol Ofizialeko Programa
9. Jatorri Geografiko bati otutako Kalitatearen eta merkaturatu aurretik Bermatutako Espezialitate Tradizionalen Kontrol Ofizialeko Programa.
10. Ekoizpen Ekologikoaren Kontrol Ofizialeko Programa
11. Behi-, ardi- eta ahuntz-espezieko animaliak identifikatu eta erregistratzeko Kontrol Ofizialeko Programa
12. Behi-, zaldi-, ardi-, ahuntz- eta txerri-espezieetako ugalketa-produktuen establezimendu baimenduen Kontrol Ofizialeko Programa
13. Behi, ardi, ahuntz eta zaldien kontzentrazio-esparru baimenduen eta behi, ardi, ahuntz eta txerrien tratulari baimenduen Kontrol Ofizialeko Programa
14. Produktu fitosanitarioen merkaturatzearen Kontrol Ofizialeko Programa
15. Giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuen (SANDACH) Kontrol Ofizialeko Programa SANDACH establezimendu eta Garraioetan
16. Elikagaiak eta pentsuak ekoizteko genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) boluntarioki askatzeari buruzko Kontrol Ofizialeko Programa
17. 92/65 Zuzentarauak ofizialki baimendutako organismo (OICAS), institutu edo zentroen Kontrol Ofizialeko Programa

Lehen aipatutako arriskuen analisisan oinarritutako auditoretzak gauzatzeko lehenespene hau EAEko Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Plana Koordinatzeko Lantalde Horizontalean aztertu eta onetsia izan da. Lantalde hori EAEko kontrol-programak aplikatzeko eta koordinatzeko eskumena duten hainbat agintaritzak osatzen dute, eta kontrol-programak doitzea dute helburu, horien egoera zehatzaren arabera.

Aintzat hartuta irismen osoko kontrol ofizialeko programa baten auditoretza egingo dela urtero, EAEko Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Plana koordinatzeko lantalde horizontalak 2021eko martxoan onartutako ikuskaritzen egutegia auditoretza-programa honen 10. atalean jasotakoa da.

10. AUDITORETZA EGUTEGIA

URTEA	KONTROL OFIZIALEKO PROGRAMA
2021	<ul style="list-style-type: none"> Higienea Abeltzaintza Ekoizpenean kontrol ofizialerako programa Elikagaien Merkataritza Kalitatea kontrol ofizialerako programa
2022	<ul style="list-style-type: none"> Higienea Erauzketa Arrantzaren Lehen Mailako Ekoizpenean kontrol ofizialerako programa. Behi-, ardi- eta ahuntz-espezieko animaliak identifikatu eta erregistratzeko Kontrol Ofizialeko Programa Produktu fitosanitarioen merkaturatzearen Kontrol Ofizialeko Programa Jatorri geografiko bati loturiko kalitate ezberdinuaren eta merkaturatu baino lehenagoko ohiko espezialitate bermatuen kontrol ofizialerako programa.
2023	<ul style="list-style-type: none"> Landareen Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa Animalien Ongizatea Ganadu Ustiategietan eta Animalien Garraioa kontrol ofizialerako programa. SANDACH Establezimenduetan eta Garraioetan kontrol ofizialerako programa
2024	<ul style="list-style-type: none"> Higienea Nekazaritzaren Lehen Mailako Ekoizpenean eta Produktu Fitosanitarioen Erabileran kontrol ofizialerako programa. Behi-, zaldi-, ardi-, ahuntz- eta txerri-espezieetako ugalketa-produktuen establezimendu baimenduen Kontrol Ofizialeko Programa Behi, ardi, ahuntz eta zaldien kontzentrazio-esparru baimenduen eta behi, ardi, ahuntz eta txerrien tratulari baimenduen Kontrol Ofizialeko Programa Higienea Erauzketa Arrantzaren Lehen Mailako Ekoizpenean kontrol ofizialerako programa.
2025	<ul style="list-style-type: none"> Animalien Elikadura kontrol ofizialerako programa Ekoizpen Ekologikoa kontrol ofizialerako programa Elikagaiak eta pentsuak ekoizteko genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) boluntarioki askatzeari buruzko Kontrol Ofizialeko Programa 92/65 Zuzentarauak ofizialki baimendutako organismo (OICAS), institutu edo zentroen Kontrol Ofizialeko Programa

11. AUDITORETZA-PROZESUA ETA -IRIZPIDEAK

Auditoretza-programa bat hau dela esan dezakegu: aldi jakin baterako planifikatutako auditoretza bat edo bat baino gehiagoren multzoa, helburu jakin bat duena eta oinarri prozesu sistematiko, independente eta dokumentatu baten bidez egituratuta duena, auditoretza-ebidentzia objektiboak eskuratzeko eta modu objektiboan ebaluatzeko, auditoretza-irizpideak zenbateraino betetzen diren zehazte aldera. Hori kontuan hartuta, beharrezkoa da auditoretza-irizpideak oinarri izango dituen auditoretza-prozesu bat edukitzea, ebidentziak eskuratzeko ahalbidetuko duena, ondoren horiek ebaluatzeko. Prozesu horrek zehaztuko du auditoretza-jardueren kudeaketa eta garapena, hasieratik amaierara. Auditoretza-irizpideak, halaber, erreferentzia gisa erabilitako betekizunen multzo bezala definitzen dira, zeinarekin ebidentzia objektiboa alderatzen baita.


11.1. UNE-EN ISO 19011 araua aplikatzea auditoretza-prozesuari; segimendua eta berrikuspena

2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua betez auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioari buruzko orientazio-dokumentu bati buruzko Batzordearen komunikazioaren 4. puntuan (Funtsezko oinarriak) jasotzen den moduan, orientazio orokor gisa gomendatzen da ISO 19011 arauan ezarritakoari lotzea. Arau horren bertsio eguneratua (2018) hartu da kontuan auditoretza-programen kudeaketari (arauaren 5. puntua) eta auditoretzak egiteari (arauaren 6. puntua) dagokionez.

Arauaren 5. epigrafea osatzen duten puntuak auditoretza-programa honetan garatu dira, eta auditoretza-jardueren garapena jarraian datorren fluxu-diagraman dago jasota, jarduera horiek gauzatzeko prozesu oso gisa.

Prozesuaren lehen zatian, auditoretza-programa eguneratuta edukitzeko jarraitu beharreko pausoak daude jasota. Horien garapena programa honen 12.2 epigrafean dago zehaztuta.

Bestalde, auditoretza-prozesua aplikatzean kontuan hartuko da "*Batzordearen komunikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren (2021/C 66/02) 6. artikulua betez auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioari buruzko orientazio-dokumentu bati buruzkoa*" 6.1, 6.2, 6.3 eta 6.4 puntuetan ezarritakoa. Horietan jasota daude auditoretza planifikatzea eta prestatzea, auditoretza egitea; baita auditoretza-txostenean jaso behar dena ere, ondorioei, gomendioei eta auditoretza-emaitzen segimenduari dagokienez.



11.2. Betebeharrak eta eskakizunak

2017/625 Erregelamenduak (EE), funtsean, II. tituluan eta VII. tituluaren zati batean, estatu kide desberdinek bete behar dituzten betebeharrak eta eskakizunak ezartzen ditu, animalien pentsuei, elikagaiek, animalia-osasunari eta ongizateari, landare-osasunari eta fitosanitarioen produktuei lotutako kontrol ofizialak behar bezala egiten direla bermatze aldera.

Eskakizun horiek auditoretza-irizpideen bidez egiaztatu ahal izango dira, auditoretza-ebidentziak erabiliz.

Eskakizunak-----Auditoretza irizpideak-----Auditoretza ebidentziak
--

Horiek aplikatzea ahalbidetzen duen sistema bat ezartze aldera, hainbat prozesu egin dira, auditoretza-helburuak eta -irizpideak deskribatzeko, 2017/625 Erregelamenduaren (EE) artikuluetan ezarritakoaren arabera. Hartara, programa hau osatzen duten auditoretzak modu uniformean gauzatzen direla bermatzen duen sistematika bat ezartzen da, kontrol ofizialak aurreikusitako xedapenen arabera egiten direla, xedapen horiek benetan aplikatzen direla eta kontrol ofizialen helburuak lortzeko egokiak direla egiaztatzeko.

11.3. Auditoretza prozedurak

Honako taula honetan 2017/625 Erregelamenduan (EE) ezarritakoa aplikatze aldera gauzatu diren prozedura desberdinak ikus daitezke. Prozedura horiek barne hartzen dituen araudi-esparrua ere zehaztu da:

Erreferentzia/bertsioa: PO-1/1. b.	
Dokumentua: Auditoretza-helburuak, -irizpideak eta -ebidentziak, kontrol ofizialen arloan eskumena duten agintaritzen arteko koordinazio- eta lankidetzak eraginkorrak direla egiaztatzeko.	
Helburua: Agintaritza eskudunen arteko koordinazio- eta lankidetzak mekanismoak efizienteak eta eraginkorrak direla egiaztatzea.	
<p style="text-align: center;"><u>Auditoretza-irizpideak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Koordinazio- eta lankidetzak-ingurune eta -jarduerak efizienteak eta eraginkorrak egotea. ➤ Arlo horretako koordinazio-arduradun bat egotea. ➤ Informazioa trukatzeko sistema bat egotea. 	<p style="text-align: center;"><u>Auditoretza-ebidentziak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Koordinazio eta lankidetzarako esparru-dokumentuak (programak, aktak...). ➤ Koordinazio-jarduerak (aktak, komunikazioak, urteko txostenak, berariazko dokumentuak) . ➤ Arduraduna identifikatzeko ebidentziak: aktak, komunikazioak... ➤ Informazio-sistemaren prozedura eta/edo erregistroa.

Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EE) 4.2.a, 5.1.b, 131, 132, 133 eta 134 artikulua.

Erreferentzia/bertsioa: PO-2/1. b.

Dokumentua: Auditoretza-helburuak, -irizpideak eta -ebidentziak, aginte eskudunak kontrol ofizialak gauzatzean sortutako informazioaren gardentasuna eta konfidentziasuna egiaztatzeko.

Helburua: Agintaritza eskudunek eginiko kontrolen gardentasun- eta konfidentziasun-eskakizunak egiaztatzea.

Auditoretza-irizpideak

- Gardentasuna bermatzea kontrol-jarduerean publikoari.
- Konfidentziasunari dagozkion lege-eskakizunak bermatzea.

Auditoretza-ebidentziak

- Dibulgazio-tresnak egotea.
- Argitaratutako informazioaren zehaztasun-erak zuzentzen direla bermatzeko mekanismoak egotea.
- Sekretu profesionalaren betebeharra bermatzen duten tresnak.

Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EE) 8. eta 11. artikulua.

Erreferentzia/bertsioa: PO-3/1. b.

Dokumentua: Auditoretza-helburuak, -irizpideak eta -ebidentziak, kontrol ofizialekin zerikusia duten zeregin espezifikoaren eskuordetzea egiaztatzeko.

Helburua: Kontrol ofizialekin zerikusia duten zereginak eskuordetzeko eskakizunak egiaztatzea.

Auditoretza-irizpideak

- Eskuordetzeko lege-oinarria egotea. Baliabideen arloko eskakizunetara egokitzea.
- Kontrol-erakundearen eta agintaritza eskudunaren arteko koordinazio-sistema eraginkor bat edukitzea, emaitzen jakinarazpen-/informazio-sistema barne.
- Kontrol-zereginak eskuordetu direla dagokion agintaritza eskudunari jakinarazteko sistema edukitzea, Batzordeari jakinaraz diezaion.
- Kontrol-agintaritzak kontrol-erakundeak gainbegiratzeko sistema bat edukitzea eta aplikatzea.

Auditoretza-ebidentziak

- Zereginak eskuordetzeko dokumentua (kontratua, hitzarmena...).
- Kontrol-erakundearen eskumena frogatzen duten erregistroak edukitzea (ISO 17020).
- Kontrol-erakundearen eta/edo pertsona fisikoaren eta agintaritza eskudunaren arteko koordinazio- eta jakinarazpen-prozedura eta erregistroak, emaitzen jakinarazpena/informazioa barne.
- Batzordeari egindako jakinarazpenen erregistroak
- Gainbegiratze-prozedura eta erregistroak.

Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EE) 4.4.d, 8.2, 28.1, 29, 30, 31.3, 32, 33. artikulua.

Erreferentzia/bertsioa: PO-4/1. b.	
Dokumentua: Auditoretza-helburuak, -irizpideak eta -ebidentziak, EAEn kontrolak egiteaz arduratzen diren langileen eskakizunak egiaztatzeko.	
Helburua: Kontrolak egiteaz arduratzen diren langileen eskakizunak egiaztatzea.	
<p style="text-align: center;"><u>Auditoretza-irizpideak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Kontrolak egiten dituzten langileek interes-gatazkarik ez edukitzea. ➤ Kontrolak eraginkortasunez egiteko bitarteko material egokiak edukitzea. ➤ Kontrolen eraginkortasuna bermatzen duten langile nahikoa eta behar bezala gaitutakoak edukitzea. ➤ Langileek kontrol ofizialak egin ahal izateko beharrezko ahalmen juridikoa edukitzea. ➤ Kontrol-langileak prestatzeko sistema bat edukitzea eta aplikatzea, 2017/625 Erregelamenduaren I. kapituluko II. eranskineko eremuak kontuan hartuta. 	<p style="text-align: center;"><u>Auditoretza-ebidentziak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Kontrolak egiten dituzten langileen artean sor daitezkeen interes-gatazkak kudeatzeko tresnak eta prozedurak. ➤ Lan-eremua, hardwarea, softwarea, ikuskaritza-material estandarra, kalibratua eta/edo homologatua. Erregistroak edo bestealakoak ➤ Organigrama egotea, zereginen deskribapena, betetzen duen lanpostua eta horien egiaztapena barne hartzen dituen prozedura-eskuliburua egotea eta horien egiaztapena. ➤ Kontrolak egiteko ahalmena ematen duen lanpostuaren jabetzea, izendapena edo legezko gaikuntza. ➤ Prestakuntza-prozedura egotea eta aplikatzea (prestakuntza-programa, prestakuntza-jarduerak gauzatzeko erregistroak).
Lotutako araudia: 2017/615 Erregelamenduaren (EE) 5.1., 5.2., 5.3. eta 5.4. artikulua.	

Erreferentzia/bertsioa: PO-5/1. b.	
Dokumentua: Auditoretza-helburuak, -irizpideak eta -ebidentziak, eskakizun orokorrak eta kontrol- eta egiaztatze-prozedurak betetzen direla egiaztatzeko.	
Helburua: Kontrol-programa aplikatzen dela eta kontrol-prozedura badagoela eta betetzen dela egiaztatzea.	
<p style="text-align: center;"><u>Auditoretza-irizpideak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Kontrol ofizialeko jarduerak sektore eta prozesu guztiak barne hartzen dituzte. ➤ Kontrolak arriskuaren arabera egiten dira eta maiztasun egokia dituzte ➤ Aldez aurreko jakinarazpenik gabeko kontrolak ➤ Informazioa eta argibideak barne hartzen dituzten prozedura dokumentatuak edukitzea, aintzat hartzen dituztenak 2017/625 Erregelamenduaren (EE) II. eranskineko II. kapituluan jasotako esparruak edo horien berrikuspena. 14. 	<p style="text-align: center;"><u>Auditoretza-ebidentziak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Prozedura-eskuliburu osoa edukitzea eta aplikatzea. ➤ Espedienteak. ➤ Programa kudeatzeko sistemak: lagin-unibertsoa, datu baseak... ➤ Kontrol-tresnak. ➤ Kontrol-jarduerak gainbegiratzeko prozedura. Erregistroak, urteko txostena, neurri zuzentzaileak hartzearen ebidentziak

<p>artikuluaren zehaztutakoarekin bat datozen kontrol-tresnak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Kontrol-jarduerak gainbegiratzeko sistema bat edukitzea eta aplikatzea; betetzea eta eraginkortasuna egiaztatzea. 	
<p>Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EE) 5.1.a, 9, 10.1, 12, 14, 18 a 27. artikulua.</p>	

<p>Erreferentzia/bertsioa: PO-6/1. b.</p>	
<p>Dokumentua: Auditoretza-helburuak, -irizpideak eta -ebidentziak, laginei eta analisiari dagokienez zehaztutakoa egiaztatzeko.</p>	
<p>Helburua: Laginen eta analisen arloan zehaztutakoa egiaztatzea.</p>	
<p style="text-align: center;"><u>Auditoretza-irizpideak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Laginketa-metodoak indarreko Batasunaren araudiaren araberrakoak. ➤ Bigarren kontraste-analisi bat egin ahal izateko bermea. 	<p style="text-align: center;"><u>Auditoretza-ebidentziak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Analisi- eta laginketa-prozedura eta horren aplikazioa. ➤ Espedienteak.
<p>Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EE) 34.1, 34.5, 35, 36. artikulua.</p>	

<p>Erreferentzia/bertsioa: PO-7/1. b.</p>	
<p>Dokumentua: Auditoretza-helburuak, -irizpideak eta -ebidentziak, errutina-laborategi ofizialek bete behar dituzten eskakizunak egiaztatzeko.</p>	
<p>Helburua: Errutina-laborategi ofizialei dagozkien eskakizunak egiaztatzea.</p>	
<p style="text-align: center;"><u>Auditoretza-irizpideak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Agintaritza eskudunak eginiko laborategien izendapena. Betekizunak. 	<p style="text-align: center;"><u>Auditoretza-ebidentziak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Laborategien izendapen ofiziala. ➤ ISO 17025 arauaren araberrako kontrol-programa aplikatzeko teknika ofizialen egiaztatpena. ➤ Zerbitzuak emateko kontratuak, izendapenik ez dabago. ➤ Laborategi ofizialetako ikuskaritzak edo jarraipen ebidentziak ➤ Konfidentzailtasuna nibermatzea
<p>Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EE) 8.2, 37, 38.1, 39.1, 39.2, 42. artikulua.</p>	

<p>Erreferentzia/bertsioa: PO-8/1. b.</p>
--

Dokumentua: Auditoretza-helburuak, -irizpideak eta -ebidentziak, kontrol ofizialetako erregistro idatziak egiteko eskakizunak egiaztatzeko.	
Helburuak: Kontrol ofizialetako erregistro idatziak egiteko eskakizunak betetzen direla egiaztatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Egindako kontrol ofizialen erregistro idatziak edukitzea. Edukiari buruzko betekizunak ➤ Arau-hausteen kasuan, kontrolatuari txostenaren kopia emateko bermea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Kontrol ofizialen erregistro idatziak. ➤ Jakinarapenak, buletinak... ➤ Kontrolatuarekin eginiko jarduketa-prozedura.
Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EE) 13.1., 13.2. eta 13.4. artikulua.	

Erreferentzia/bertsioa: PO-9/1. b.	
Dokumentua: Auditoretza-helburuak, -irizpideak eta -ebidentziak, larrialdi-planen dagozkien eskakizunak egiaztatzeko.	
Helburua: Larrialdi-planak badaudela eta aplikatzen direla egiaztatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Larrialdi-plan eraginkorrak edukitzea eta aplikatzea. ➤ Larrialdi-planen betekizunak eta beraien berrikuspena. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Larrialdi-planak. Jarduketa-kasuen erregistroak. ➤ Eguneratzearen ebidentziak
Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EE) 5.1.i, 115.1, 115.2 eta 115.3. artikulua.	

Erreferentzia/bertsioa: PO-10/1. b.	
Dokumentua: Auditoretza-helburuak, -irizpideak eta -ebidentziak, arau-hausteei eta zehapenei dagokienez zehaztutakoa egiaztatzeko. Zehapen-araubidea aplikatzea.	
Helburua: Zehapenen arloko irizpideak betetzeko eta zehapen-araubidea aplikatzeko egiaztatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Arau-hauste kasuetarako jarduketak egotea. ➤ Zehapen-araubidea edukitzea eta aplikatzea, eta lege-eskakizunak betetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Arau-hausteen kasuan jarduteko prozedura. ➤ Espedienteak ➤ Zehapen-prozedura.

Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EE) 138.1, 138.2, 138.3 eta 139.1. artikulua.

12. SEGIMENDUA ETA BERRIKUSPENA

12.1. Azterketa independentea

2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6.2 artikuluekin bat etorritik, eta auditoretza-prozesua bere xedek betetzen ari ote den egiaztatzeko asmoz, ikuskaritzei azterketa independentea egingo die auditoretza-organismoak eta auditoretza egingo zaien agintari eskudunetarik kanpoko pertsona edo erakunde batek. Azken horrek auditoretza-prozesua aztertzeko independentzia- eta ezagutza-maila nahikoa izango du.

Azterketa horrek auditoretza-prozesu osoa hartuko du barne: ikuskaritzen programazioa, plangintza eta exekuzioa, txostena (onarpena barne), ekintza zuzentzaileak eta jarraipena. Eta, hortaz, ez da auditoretza-erakundearen auditoretza bat bere horretan.

Auditoretza-prozesuaren eta auditoretza-erakundearen eraginkortasunaren eta independentziaren ebaluazio objektiboa eman beharko du, baita etengabe hobetzeko feedbacka eta auditoretza-erakundeari eta agintaritzari eskudunen arduraduneri auditoretza-prozesua 2017/625 (EB) Erregelamenduan ezarritako helburuak lortzen ari dela ziurtatzeko konfiantza ere.

Azterketa hori auditoretza-programaren indarraldia amaitu baino lehen egingo da, eta agintari eskudunek bermatu egin beharko dute dokumentatuta dagoela. Besteak beste, honako hauek izango ditu: erreferentziako terminoak, zereginak eta erantzukizunak, konfidentzialtasuna, arau etikoak, eskubideak eta betebeharrak, txostenak eta hedapen-betebeharrak.

12.2. Ofiziozko segimendua eta berrikuspena

Auditoretza-programaren ezarpena eta haren helburuen betetze-maila azterketa independentearen bitartez berrikusi behar badira ere, ikuskaritu beharreko kontrolen sistemaren konplexutasuna eta urte anitzeko programa batean hainbat aldaketa gertatzeko aukera direla-eta (bai indarreko aplikazio-araudian bai erreferentziako dokumentuetan, edo baita eskumeneko agintaritzen egitura organikoan ere), beharrezkoa da agintaritzek etengabe segimenduak eta berrikuspenak egitea auditoretza-programaren edukiei. Horien bitartez, edukiak baztertu, sartu edo aldatuko dira auditoretza-programan, baldin eta proposamenen egokitasuna eta koherentzia

behar bezala egiaztatzen badira (indarraldia galtzea, aldaketak erreferentziazko planetan...).

Era berean, auditoretza-erakundeak, berrikuspen teknikoak, egiturari dagozkionak edo prozedurari dagozkionak egin ondoren, egokitzen jotzen dituen aldaketak egin ahal izango dizkio auditoretza-programari, baldin eta auditoretza-prozesua betetzeko beharrezkotzat jotzen baditu.

13. GARDENTASUNA

2017/625 Erregelamenduaren (EE) 4.6 artikulua ezartzen du, bestalde, ikuskaritzek gardenak izan behar dutela, eta erabateko gardentasuna egon behar duela erakunde ikuskatzailearen eta ikuskatuaren artean. Bermatu egin behar da, halaber, auditoretza-prozesua gardena dela beste interesdun batzuentzat, eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira.

Agintzari eskudunek neurri egokiak hartu beharko dituzte gardentasun hori bermatzeko, besteak beste, estatuko lege-eskakizunak kontuan hartuta.

Edonola ere, neurri horiei buruzko erabakiak hartzean, oreka bilatu behar da gardentasun-beharraren eta auditoretza-sistemaren helburuak lortzeko ahalmenari kaltea eragiteko arriskuaren artean.